

# Aretxagazeta



## Nork jantziko du txapela?

Datorren martitzenean,  
azaroaren 12an,  
egingo dituzte

**udaltzain berria**  
aukeratzeko  
aurreneko probak

### ETA GAINERA...

#### Ze barri?

GAIA

Ehungarren zenbakira  
heldu da astekaria /8

KIROLA

Hamabost umek Kenpoa  
egiten dute /9

LEINTZ GATZAGA

X. Langintzen Ferixa  
domekan /10

**GUARDIAKO FARMAZIA**

ZAPATUA, 9  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 21 99  
**DOMEKA, 10**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>OROKORRAK</b>	
Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarte .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Saretxo .....	943 71 26 56
Taxi geltokia .....	943 79 22 33
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate .....

<b>LARRIALDIK</b>	
SOS Deiak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdia .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00/12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00/10:00  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**LARRINON**  
Domeketan: 11:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GALARTZA**  
Domeketan: 12:30

**OHARRAK**

**1980KOEN KINTO-AFARIA**  
Bihar, zapatua, 1980. urtean jaiotakoek kinto-afaria egingo dute Gurean. Afarira doazen guztiak Arlutzen elkartuko dira, 20:00etan.

**1970KOEN KINTO-BAZKARIA**  
Bihar, zapatua, 1970. urtean jaiotakoek kinto-bazkaria egingo dute Deban. Bazkari-tara doazenak 12:00etan elkartuko dira Juliantxo tabernan.

**1973KOEN KINTO-BAZKARIA**  
Azaroaren 16an (zapatua), 1973. urtean jaiotakoek kinto-bazkaria egingo dute Taberna Berrin. Interesatuok eman izena Arlutz tabernan azaroaren 13a baino lehenago.

**ERRETIRATUENDAKO HERENTZIEN ETA TESTAMENTUEN GAINEKO HITZALDIA**  
Gipuzkoako Kutxak ondorengotzen, testamentuen eta herentzien gaineko berbaldia antolatu du. Berbaldia Sara Ibarbiak egingo du, azaroaren 13an 19:00etan Basotxoko egoitzan.

**ESKULAN IKASTAROA**  
Kultura Sailak antolatutako Eskulan ikastaroan izena eman gura baduzu, deitu lehenbailehen 943 71 10 27 telefono zenbakira.


**LORAMENDIRENAGENDA**

**PAKETERIA IKASTAROA ASTE HONETAN HASI DUTE MERKATARIEK**  
Azkenean ere, azaroaren 5ean hasi zuten Paketeria ikastaroa. Ikastaroak 16 ordu iraungo du; hortaz, hasiera baten, azaroaren 14ra arte izango da. Parte hartzaileek horrela adostuta, eskolak gauz emango dituzte, 20:00etatik 22:00etara, Loramendi Euskara Elkartearen egoitzan.

**ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN**

**Udalaren baimen barik jarri zuten antena**


Urriaren erdialdera, AIRTEL konpainiak 30 metroko antena jarri zuen Apotza-Etxebarri auzoan. Udalak ez zion baimenik eman antena jartzeko, eta azaroaren hasieran zigorra jartzeko prozedura zabaldu zuen. Udalak eskatu zion telefono antena Muru mendian jartzeko.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Tatarras"**

Arrastaka.  
-Tatarras eruan biar izaten dou medikuana.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Aitor Belategi**  
11n, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ARETXABALETA  
**Eder Antia**  
5ean. Zorionak, gaztetxekoen eta Leire lehen-gusinare partetik.



ARETXABALETA  
**Lorea Mateos**  
8an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Arrasateko amamaren partetik.



ARETXABALETA  
**Maider Conde**  
9an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, aita txoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA  
**Ioritz Sáez de Gordo**  
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ARETXABALETA  
**Markel Sáez de Gordo**  
12an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ESKORIATZA  
**Mikel Crespo**  
4an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ESKORIATZA  
**Aiert Günter**  
7an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en eta lagunen partetik.



ESKORIATZA  
**Auritz Iñurrieta**  
3an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en eta lagunen partetik.




ESKORIATZA  
**Ane Eraña**  
7an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Rebel Mayo Colorao'**

*Rebel Mayo* eta *Colorao* dira Rekalderen lehen nobelako protagonistari eman dizkioten bi izenak. Lehenik, idazlea bera Nafarroara doa, eta han izango du bere nobelaren protagonistaren berri. Coloraok, Paddy Rekalde politikatuengatik, Txalaparta, 2002 Irlandara ihes egin beharko du; uhartean bizi duen bizimodu bakartia, alkohola, sexua, politika... nahastuko dira liburuan. Amaieran, nolabait askatzen du Rekaldek hor gertatzen den korapiloa, hasierako kontakizunarekin lotuta.



**REBEL MAYO COLORAO**

Paddy Rekalde  
Txalaparta, 2002  
334 orrialde

Paddyren kontraera gogor da, bere ohiko estiloan, eta klandestino xamarra ere bai, ez digu eta aukerarik ematen pertsonaiaren datu askorik jakiteko.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia  
1980tik zuen zerbitzura

liburutxoak, sobreak, pegatinak, kalendarioak, kartak, fakturak, poltsak, tarjetak, katalogoak, triptikoak, publizitatea, jai egitarauak, kartelak, albaranak, aldizkariak, errekor datorioak,

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com

**Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

## ATREBENTZIA EZPADA/ Etxebizitza erostie gatxa da? Emuten dittuen laguntzak nahikuek die?




**INMA MIGEL**  
langillie



**JOSEBA GONZÁLEZ**  
langillie




**MARI CARMEN FUENSANTA**  
langillie



**JOSEBA ELOSEGI**  
langillie



**ELIZABET BARANDIARAN**  
langillie



**JON KEPA ZUBILLAGA**  
langillie

Oso gatxa da etxie erostie. Neure ustez, oingo gaztiekin bizitza osuen ezin izengo daue etxebizitza bat erosi. Instituziñuetako laguntzei dagokixenez, barregarriak diela pentsetan jat.

Diru nahikue euki ezkerok, ez da gatxa etxie erostie. Beste kontu ba da norberak gure dauen etxie erostie. Eta ez dittut horreik diru laguntzok ezaguketan; hortan, ezin neike ezer esan.

Etxebizitza erostie oso -oso gatxa da, eta gaztiondako, ixe eziñezkue esango neuke. Eta emuten dittuen diru laguntzei dagokixenez, errealidadetik kanpo geldiketana die.

Lan egin ezkerok, ez da gatxa etxie erostie. Samur-samurra be ez da, baiñe zerbait gure dauenak badaki ze egin. Eusko Jaurlaritzak emuten dittuen laguntzak justuek die.

Ez, ez da bat be samurre gaur egun etxebizitza erostie. Soldata bi biherrezkuek die, eta, hala eta be, gatxa da. Dirulaguntzak emuten dittue, baiñe askotan, oso gutxi.

Ondiokan ez dot etxerik erosi; hortan, ezin neike esan samurre dan edo ez. Dana dala, inguruen ikusitakuagaittik, gatxa ei da. Eta laguntzak lortzeko bete-behar haundixek daguz.

### TXALOAK ETATXISTUAK



### ASTEKODATUA

# 12

#### LAGUNEK EGINGO DUTE ERRETZEN UZTEKO IKASTAROA

Azkenean, hamabi lagunek baka-rrik hartuko dute parte Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatutako Erretzen Uzteko ikastaroan. Izena emateko aukera, baina, 24 lagunek izan dute.


### BESTEKE SANA

**“Guk denbora asko daramagu corpusekin lanean, eta azkenaldian, eskuarteak daukagun materiala oso urria dela iruditu zaigu. Gure ustez, euskaraz azterketa on bat egin ahal izateko beharrezkoa da corpus handiago bat osatzea. Gaur dauzkagun baliabideekin posible da corpus egokia bat osatzea, batez ere, Egunkariak berak argitaratzen dituen testuei esker.**

**Aurkeztu dudana, XX. mendeko corpora, estatistikoa da, eta ez da bost milioi hitzetara iristen. Espainiako Akademiak aurkeztuko duenak berriz 150 milioi hitz inguru ditu, eta Kataluniakoak 52 milioi. Gaur egun, estandarra ehun milioi inguruko da. Baina guk ezin dugu horrelakorik lortu, besteak beste, euskararen baliabideak murriztzak direlako.**

**MIRIAM URKIA**  
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-10-25

### HERRITARREN BERBAK/ Lore Abarik



*Lau ladrilo ume baten truke*

**E**txebizitza. Lurrean seko jausteko prezioak: 200.000 euro, 300.000 euro, 360.000 euro... Eta nik galdetzen dut: prezio horiek guk ordaintzeko dira ala gure seme-alabek? Hori ordaintzeko ez dakit denborarik emango digun... Nondik atera behar ditut nik 40, 50, 60 kilo? Beno, bizitza guztia hipotekatuta, agian...

Beno, eta bikotea baduzu ezin zara hainbeste kexatu, biok lanean ibilita, noski, biotako baten soldata hipoteka ordaintzeko (zortea izanda...) eta bestearena jan, jantzi, hezi... Hau da, orokorrean esanda, bizi izateko. Ez baduzu bikoterik, esan behar dizugu zure egoera larriagoa dela eta etorkizunean gurasoekin bizi izateko portzentaje handiagoa duzula, eta, gainera, betiko komentarioak entzun beharra izango dituzula: gaurko gazteok berandu arte gurasoen etxean zaudete, gero eta ume gutxiago dago...

Ba normala!

Noski, Espainiako Jose Marik oso erraz ateratzen ditu bere ondorioak: etxeak ez daude hain garesti, jendeak erosi egiten baititu, eta erosten badira, gero eta diru gehiago dagoelako da, jendeak bizi maila handiagoa duelako. Balorea behar da adierazpen hauek egiteko... Nonbait bizi nahi baduzu, etxea erosi beharko duzu, janaria behar duenak janaria erosi behar duen bezala, ogiaren prezioa zeruraino igotzen badute ere.

Bizitza, azkenean, prioritaterik osatua dago. Gauza batzuk utzi behar dira beste batzuk lortzeko. Baina, gaur egun lau ladrilok duten prezioa biharko plan asko mugatzen ari da. Eta ez naiz ari gauza materialez. Gogorra den arren, agian, etxea erosteak familia askotan seme-alaba bat gutxiago ekartzea dakar, Eusko Jaurlaritzaren *super laguntzak* tartean. Hau da eraikitzen ari garen gizartea.

Tristea da oso.

**“Baina, gaur egun lau ladrilok duten prezioa biharko plan asko mugatzen ari da. Eta ez naiz ari gauza materialez”**

**TXALOAK ERAIKIN DOTOREA** Etxebizitza berriak egiterakoan eraikitzaile askok ez dute kontuan hartzen eraikinaren kanpoko aldea. Hori dela eta, poza ematen du goiko irudian azaltzen diren moduko etxebizitzak ikusteak. Otorala kalean dago, eta oraindik ez dituzte bukatu eraikina zaharberritzeko lan guztiak. Edozelan ere, orain arte egin dutenak txalo beroa merezi du. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Udaltzain izateko probak

Martitzenean, azaroaren 12an, udaltzain berri aukeratzeko lehenengo probak egingo dituzte.

ASTEAN BEHIN /05

#### Kulturako gaia eztabaidagai

Kultura ekitaldiertarako eraikinaren proiektua bertan behera gelditu da. Horrek eztabaida sortu du.

KIROLA /06

#### Miriam Santateresa

Miriam Santateresak oraingo domekan Gipuzkoako Karate Txapelketan parte hartuko du.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagola Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

*Diru gutxi,  
afari asko!*

**E**z dizuet esango zein urtean jaiotakoa naizen, baina horra hor pista bat: laster, kinto-afaria izango dut!

Polita izan ohi da garai hau, 80ak, 70ekoak... Denek egin ohi dugu inoiz eskolan ibilitako jendarekin afaria. Txikiteoa, berriketaldi bat, afaria eta zergatik ez, norbait ausartzen bada, baita bertso saioa ere.

Eta bertsoak aipatuz, badakizue nor hasiko zaigun berriz ere bertso-tan? Ba, **Jon Sarasua**. Aspaldi berriketan bai, han eta hemen, baina, bertso-tan, gutxi entzun dugu Jon. Bueno, norbait tek joan gura badu, hemen hitzordua: azaroaren 10ean, Hondarribiko Hondartza kiroldegian.

Baina, asteburu hone-tarako beste hitzordu bat ere proposatu behar dizuet. Izan ere, **Miriam Santateresak** Gipuzkoako Karate Txapelketan hartuko du parte oraingo zapatuan. Hamasei urteko neska gazte horrek lehenengo aldiz jokatu du kadete mailako 'Kata' sailean. Zorte on, Miriam!

Eta bukatzeko, gogoetatxo bat. Eguazte-nean, hantxe izan nintzen, **Javier Madrazok** emandako berbaldia entzuten. Baina, badakizue? Etxean kontuak egin eta gero konturatu nintzen orain pisua erositzen gero, 61 urterekin bukatuko nuela ordainketa. Ez dago eskubiderik!

UDALTZAIN BERRIA/ Lehenik, Bigarren Hizkuntza Eskakizuna ziurtatzeko proba egingo dute

## Udaltzain postua betetzeko probak egingo dituzte martitzenean

AMAGOIA LASAGABASTER

Abuztuan kaleratu zuten udaltzain postua betetzeko lan-poltsa. Irailean, postu horretarako izena emateko aukera egon zen, eta orain, azaroan, aukeraketa egiteko probak egingo dituzte. Lehenengo azterketa martitzenean, azaroaren 12an, egingo dute.

Herrian gaur egun dabilzan udaltzainek aspaldi sumatu zuten laguntza beharra zutela. Hain zuzen ere, eurek eskatu zuten beste udaltzain bat kontratatzea. Eta Udalak, gaia aztertu ondoren, proposamenari baiezkota eman, eta abuztuan, beste udaltzain bat hartzeko lan-poltsa sortu zuen. Udako oporrak pasatu eta gero, irailaren erdialdean, hamabi lagunek aurkeztu zuten euren burua udaltzain lanetarako.

### HAMABI HAUTAGAI

Lanpostua betetzeko aurkeztu diren hautagai gehienak gizonetzkoak dira, baina, hala ere, badaude emakumezko batzuk ere. Hamabi lagun horiek, gainera, beste horrenbeste herritakoak dira. Horren ondorioz, aukerak ikusita, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Antzuola, Laudio edo Zarauzko udaltzain bat izango dugu, seguruenik, herrian.

Udaltzain izateko, lehenengo eta behin, hautagaiek zenbait azterketa egin beharko dituzte. Lehena, zortzi hautagaiek egingo



Argazkian azaltzen diren hiru udaltzainak ari dira gaur egun herrian lanean.

dutena, Euskararen Bigarren Hizkuntza Eskakizuna ziurtatzeko proba izango da. Gerora, lehenengo proba hori gainditu duten guztiak azterketa teorikoa eta praktikoa egin beharko dituzte. Praktikoan, besteak beste, erresistentzia eta abiadura

neurtuko dituzte. Azkenik, test psikotekniko baten bidez udaltzain izateko gaitasuna neurtuko diete.

Proba horik guztiak pasatu eta gero aukeratuko duten udaltzaina, beranduenez, 2003ko urtarri-laren 2an hasiko da lanean.

## Meningitisa izan duen umea arriskutik kanpo dago, eta, gainera, ez da beste kasurik azaldu

AMAGOIA LASAGABASTER

Azaroaren 2an, meningitisa atzeman zioten Aretxabaletako ume bati. Zorionez, garaiz eraman zuten eskualdeko ospitalera, eta, azken berrien arabera, dagoeneko arriskutik kanpo dago. Ume

horrek Santa Rita ikastetxean ikasten du, eta, horren ondorioz, eskolan beharrezko neurriak hartu zituen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Astelehenean, azaroaren 4an, pediatra batek meningitisaren gainera azalpen guztiak eman zizkien gurasoei.

Batzar hartan, bide batez, izua zabaldu ez zedin lasaitasunerako deialdia egin zuen sendagileak. Haren esanetan, orokorrean, meningokokoko bakterioa transmitzea ez da erraza. Horregatik, beharrezkoa izaten da harreman zuzena eta handia egotea beste

umeren batek gaixotasuna hartzeko. Horrenbestez, meningitis epidemia gertatzeko arriskua oso txikia da. Edozelan ere, astelehenean eguaztenera bitartean meningitisa duen umeren ikas-kide guztiak xarabea hartu beharra izan zuten.

## LABUR

### Javier Madrazok etxebizitzaren gaineko berbaldia egin zuen

Eguaztenean, hilak 6, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Ongizate Sozialeko sailburu Javier Madrazok eta Etxebizitza sailburuorde Javier Dean-ek etxebizitza politikaren gaineko berbaldia egin zuten udaletxean.

### Etxabeen gaineko ikerlana oraindik ikusgai udaletxean

Hasiera baten, etxabeak etxebizitza bihurtzeko ordenantza astelehenean egindako ezohiko bilkuran onartu behar zuten. Dena dela, herritarrek txostena ikusteko erakutsi duten interesa dela eta, Udalak hilabete honen amaiera arte jarri du ikusgai.

### Bidegorria egiteko lanek martxa ona daramate

Azaroaren 24rako amaituko dituzte Bainuetzeko Industrialde berritik Urkulura joango den bidegorriaren lanak. Martitzenean amaitu zituzten bidea egokitzeko lan guztiak. Orain, alboetan itxitura jartzea eta bide bazterreko arekak txukuntzea bakarrik falta da.

*Lubia*  
oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABAleta  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

REGIANDO

optika

Loramendi, 10  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 98 21

Mobiliario  
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

*Lie*

LURRINDEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABAleta

**KULTURA EKITALDIETARAKO ERAIKINA/** Batasunak eta EAJ-EAk euren jarrera argi erakutsi dute atzera botatako proiektuaren gainean

# Aurten ere kultura ekintzetarako balioko lukeen eraikin barik geratuko da herria

AMAGOIA LASAGABASTER

Aurten, azkenean ere, zinema, antzerki, eta beste zenbait kultura ekitaldi egiteko balioko lukeen eraikina egiteko proiektua aurkeztu dute Udalean. Diru ugari gastatu dute proiektu horretan, baina, zoritxarrez, ez da errealitate bihurtuko.

Desadostasuna eta ulertezina. Bi berba horiek ondo baino hobeto deskribatzen dute azkenaldian Batasuneko eta EAJ-EAko zinegotzien arteko harremana.

Batasunak legealdi honetan, kosta ahala kosta, kultura ekitaldi guztiak egin ahal izateko eraikina egin gura zuen. EAJ-EAk ere argi ikusi zuen herrian behar hori zegoela, eta helburu horren alde lan egiteko arteko azaldu zen. Bi alderdien arteko borondate onak, baina, azkenean ez du ezertarako balio izan.

## IBILBIDE LUZEA

Kultura ekitaldietarako eraikina egiteko proiektuak ibilbide luzea egin du. 2000. urtean izan zen eraikin berria egiteko lehenengo saioa. Orduan, gaur egun zinetoki zaharra dagoen lekuan jarri gura izan zuten eraikin berria. 2001. urtean, arkitektoak aurreproiektua egin, eta Udalean aurkeztu zuen. Aurreproiektu hura atzera bota zuten, behar guztiak asetzen ez zituelako. Une hartan, gainera, Plan Estrategikoa egiten ari zirenean, eta Udalak geldione bat egitea pentsatu zuen. Gerora, 2001eko uztailean, eraikin berria kuartel zaharrean egiteko proposamena azaldu, eta bilkura baten proiektua berria egiteko erabakia hartu zuten. Azkenean ere, aurten, urte hasieran, arkitektoak proiektua aurkeztu zuen Udalean. Lanak egiteko, baina, azken pauso bat onartu beharra zegoen, gehiengo absolutuarekin: onartzea kreditu baten eskaera, hain zuzen ere. Batasunak ez zuen lortu behar adina botorik, eta proiektua bertan behera gelditu da.

**ANJEL BERGARETXE/ALKATEA**

*“Ez daukat argi EAJ-EAk zer gura duen”*

Kultura ekitaldietarako egin beharreko eraikinaren proiektua zapuztuta, Anjelek legealdi honetako etsipenik handiena izan du. Haren esanetan, denbora eta ilusio ugari jarri ditu proiektu horretan, eta egun, oraindik, ez du ulertzen EAJ-EAren jarrera.

Aldez aurretik bazenekien EAJ-EAk ez ziola baiezkorik emango kreditua onartzeko eskaerari. Hortaz, zergatik jarraitu zenuten proiektu horrekin?

Batetik, kultura ekitaldietarako horrelako eraikin bat egiteko konpromisoa hartuta geneukalako herritarrekin; bestetik, ez genekielako PPren eta PSOEren botoa zein izango zen; eta, azkenik, EAJ-EAren jarrera azaleratu gura geneuelako. Kuarteleko proiektua ez bazuten gustuko, nire iritziz, herritarrek esku-bidea zuten hori jakiteko. Euren jarrera ezkututzen ibili dira, eta ez dakit zergatik.

Proiektu horretan diru asko gastatu duzue. Horren ondorioz murriztu dira kultura ekintzetarako laguntzak?


Ez, urterto daude diru partida batzuk; hortaz, horretan ez dugu eskurik sartu.

Zelan ulertzen duzue zuek oposizioaren jarrera?

Nik atera dudan ondorioa da ez dutela ezer egin gura. Ez, behintzat, legealdi honetan. Egin ditugun bi proiektuetan trabak jarri dituzte, baina ez hasieran, gero baizik, aurreproiektuak eta ilusioak eginak genituenean.

Zure iritziz, aurkeztutako proiektua asmo handiegikoa zen?

Nik uste dut ezetz. Herriarendako ondo egokitzen zen proiektua egin zuen arkitektoak.



AL

*“Nik neuk gogo eta esperantza txikia daukat beste negoziazio bat hasteko”*

Ez zen inola xahubidea. Eraikin merkeagoak badaude industriadan, baina uste dut duintasun apur batekin egin beharreko eraikina zela.

Zerbait esan gura diezu Leizarra Musika Eskolakoei, Akordeoi Orkestrakoei... herritar guztiei, azken baten?

Oraingoan, denak berdin jarraituko duela. Nik neuk gogo eta esperantza txikia daukat beste negoziazio bat hasteko. Ez daukat argi EAJ-EAk zer gura duen, eta orain arte egin dituen proposamenak ez dira berba egiten hasitekoak ere.

**EDORTA MENDIETA/EAJ-EA**

*“Oraingo Udalaren gestio eredua da arazoa”*

EAJ-EAri ez zaio gustatu Batasunaren lan egiteko modua. Proiektua bera ez lukete atzera botako, baldin eta herritarren poltsikoetarako inbertsio handiegia izango ez balitz. Gainera, EAJ-EAren iritziz, proiektu horrek ez ditu asetzen herri honen beharrak.

Zergatik eman diozue abstentzioaren botoa kultura ekitaldietarako proiektuari?


Gu ados gaude kultura inbertsioak egiteko erabakiarekin. Gertatzen dena da Udal honek ez duela fundamentera erakutsi aurrekontuak gestionatzerako orduan. Horregatik, aurrekontuei ezin izan genien aldeko botorik eman, eta, horregatik, ez gaude ados proiektuarekin.

Benetako arazoa, baina, non dago?

Legealdi hasieran lan egiteko modua adostu genuen, baina Batasunak ez du hori errespetatu. Gastua etengabe hazi da, eta, gaur egun, duela bost urte aurrezten genuenaren erdia aurrezten dute. Eta horrela ezin daiteke kultura ekitaldietarako proiekturik egin.

Hortaz, dirua da arazoa?

Dirua baino gehiago, oraingo Udalaren gestio eredua da arazoa. Edo, hobe esanda, eredurik eza. Proiektu horren kasuan, izan da eztabaidarik benetako beharrak zein diren aztertze? Planifikatu da inbertsioaren finantzaketa? Egin da lanik beste erakunde batzuetan finantzaketa iturriak lortzeko? Izan dute kontuan orain kuartelean daudenen etorkizuna? Non sartuko dituzte eraikina amaitu bitartean? Izan dute kontuan zelan eragingo dien proiektu horren funtzionamendu gastuek kultura elkartearen finantzaketari? Hori guztia da arazoa.



AL

*“Legealdi hasieran lan egiteko modua adostu genuen, baina Batasunak ez du hori errespetatu”*

Galderak bai, baina beste aukerarik jarri duzu mahai gainean?

Ez dugu proiektu zehatzik egin, baina ideiak bota ditugu.

Galtzaileak, beti bezala, herritarrek. Zer esan gura diezu herritar horiei guztiei?

Gure nahia da auzi hori eztabaidaren bidez konpontzea, baina Batasunaren jarreraren ez dugu aldaketarik ikusten. Hortaz, denak berdin jarraitzen duen bitartean kultura taldeek egungo eraikinetan jarraitu beharko dutenez, eraikin horien mantentze-lanetan inbertitu behar dute.

**J.J. IRURE**  
ITURBENTZA  
URA  
GASA  
KALEFAKZIOA  
MITARTE, 15  
ARETXABALETA  
943 793 187

**IBARRA**  
estankoa  
PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA  
Egunero zabalik  
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**BENGOA**  
URDAITEGIA  
Bertako okelak  
eta mortzilak  
Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**IRIARTE**  
Umeen  
denda  
eta  
lentzeria  
Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

Jou Diaz  
Harakina  
Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

KARATEA

# Miriam Santateresak Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu du

Miriamek 17 urte ditu, eta kadete mailako 'kata' modalitatean hartuko du parte

AMAGOIA LASAGABASTER

Etzi, domeka, Miriam Santateresa Lasarte-Orian jokatu du Gipuzkoako Karate Txapelketan izango da. Lehenengo aldia da horrelako norgehiagoka baten parte hartzen duela Miriamek, eta, adierazi digunez, aste osoan oso urduri ibili da.

Aretxabaletako Karate Taldea ez da oso indartsua. Egia esan, orain arte ez dute sekula parterik hartu Gipuzkoako Karate Txapelketa moduko ekitaldi baten. Aurten, baina, talde osoa ordezkatu duen kirolari bat bidaliko dute txapelketa horretara. Haren izena Miriam Santateresa da, eta oraingo domekan Lasarte-Orian jokatu du Gipuzkoako Karate Txapelketan izango da.

## ESPERIENTZIA TXIKIA

Miriam Santateresa orain dela lau urte hasi zen karatea egiten. Dena dela, aurreko urtera arte ez zuen federatu txartelirik izan. Haren esanetan, karatean hasi zenean, uste zuen denbora-pasa hutsa izango zela. Orain, berriz, Gipuzkoako Karate Txapelketan parte hartuko du. Oraingo domekan, kadete mailako 'kata' modalitatean jokatu du. Miriamek teknikoki esfortzu eta kontzentrazio handia eskatzen duten karate mugimendu ugari egin behariko ditu, bata besteari jarraian; horretan oinarritzen da, hain



Miriam Santateresak astean bi entrenamendu saio bakarrik egiten ditu.

zuzen ere, 'kata' modalitatea. Aurrez aurre, berriz, hiru epaile eta epaimahaikideak izango ditu bere lana neurtzen. Bi txanda egingen dituzte, eta lehenak kanporaketak egiteko balio izaten du. Miriamen helburua da bigarren txandara iritsi ahal izateko beharrezko puntuak lortzea.

## URDURITASUNA

Miriamek sekula ez du parterik hartu era horretako txapelketa baten, eta oso urduri dagoela esan digu. Dena dela, domekan, ondoren izango ditu etxekoak, bai eta entrenatzailea ere, Odilo Vázquez. Eta badaki horiek laguntasun handia emango diotela.

## PREFERENTEA

### Garaipen garrantzitsuarekin etxeratu zen joan den domekan UDAko preferente taldea

Esan liteke, apurka-apurka bada ere, UDAko preferentea burua altxatzen hasi dela. Joan den domekan, Anaitasunaren aurkako partiduan etxetik kanpora jokatu du lehenengo partidua irabazi zuten. Eta ez hori bakarrik, Bittor Muxikaren mutilek partidua bakarrean gol bat baino gehiago egiteko gai direla ere erakutsi zuten. Garaipen horren ondoren, une honetan 12. postuan daude sailkapenean. Oraingo domekan, UDAko jokalariek Zarauzkoen aurka neurtuko dituzte indarrak. Sailkapenean antzera dabilta bi talde horiek; hortaz, beste behin ere, irabaztea oso garrantzitsua izango da UDAkoendako.

## ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

### Oraingo asteburuan amaituko dute Eskuz Binakako Txapelketako lehenengo txanda

Bihar, zapatua, jokatu dituzte kirol etxeak antolatutako Eskuz Binakako Pilota Txapelketako lehenengo txandako azken partidua. Orain arte lau jardunaldi jokatu dituzte, eta, bosgarrenean zer gertatuko den jakin barik, hona hemen gaur egungo sailkapena: lehenengo taldeko buru Kepa Unanue eta Jose Maria Carrillo daude; bigarren taldeko onenak, berriz, Jabi Isturitz eta Iñigo Irasuegi dira. Horiek guztiek eta gainerako pilotariek azaroaren 16an jokatu dituzte kanporaketetako aurreneko partidua. Eta txapelketako finalari dagokionez, azaroaren 30ean jokatu dute bi taldeetako bikote onenek.

## KARTELEDEGIA

### FUTBOLA

UDA-Zarautz  
Preferentea.  
Zapatua. 16:30. Ibarra.  
Are./Almen(b)-Are./Alme(c)  
Bigarren mailako gazteak.  
Zapatua. 15:45. Ibarra.

### PILOTA

Aretxab.(2)-Azpeitia(2)  
Gazteak.  
Egubakoitza. 21:00etan.  
Aretxab.(2)-Eibar (2)  
Nagusiak.  
Egubakoitza. 22:00etan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Anaitasuna 0 UDA 2  
Preferentea.  
UDA 3 Hondarribia 5  
Ohorezko Liga.

### Are./Almen(b) 2 Eibartarr. 2

Bigarren mailako gazteak. \*Gainerakoek ez zuten partidurik jokatu aurreko asteburuan.

### Antzuola 3 Are./Almen(c)3

Bigarren mailako gazteak.

### Zarautz 1 Are./Almen 5

Lehenengo mailako kadeteak.

### UDA 1 Ikasberri 5

Bigarren mailako kadeteak.

### PILOTA

Usurbil 22 Aretxab. 16

Bigarren mailako gazteak.

Usurbil 22 Aretxab. 10

Lehenengo mailako gazteak.

**TABERNA**  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

**PAGALDAI**  
*Opari denda*  
*Lurrindegia*  
Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**ANA'S**  
jantzidenda  
Iparragirre 4.  
Aretxabaleta

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza  
- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala  
Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**Esko Sport**  
Zure konfiantzako denda  
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96  
**LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA**

TERNUA  
Outdoor Gear

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**  
Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**  
Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**  
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK  
Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

## ERRETRATUZAHARRA

San  
Inazio  
Egunez  
ezkontza

**R**osario Garziaetxabe eta Bixente Etxeandia aretxabale-tarrak San Inazio Egunez ezkondu ziren, orain dela 42 urte.

Arantzazun ezkondu ziren, eta banketea Oñatiko Etxebarri jatetxean egin zuten. Familiartekoak eta lagunak elkartu ziren, eta oso ondo pasatu zutelara esan digute Garziaetxabe ahizpek. Senargaia garai hartan futbol jokalaria zenez, hainbat futbol taldeetako jokalaria eta entrenatzaileak ere izan ziren ezkontzan.



Eguna amaitu zenean, eta familiakoak eta lagunak agurtu ondoren, ezkonberriak koinatu batek utzitako auto txiki baten Bilbora joan ziren. Bilbon gaua pasatu zuten, eta hurrengo egunean Bilbotik Gijon aldera egin zuten. Egun batzuk Gijonen eginda, larri-larri izan bazen ere, auto txikiak Leoneraino

eraman zituen ezkonberriak. Baina han autoak pot egin zuen. Autoa utzi zien koinatuak eta beste lagun batek ezkonberrien bila joan behar izan zuten Aretxabaletatik Leonera. "Autoa han gelditu zen betiko", esan digu Rosariok. Hamar bat egun egin ei zituzten ezkonbidaian, Andramaxetarako herrian ziren-eta bueltan.

Argazkian Rosarioren lagunak ageri dira, ondo elegante jantzita guztiak: "Orduan, kapelak askok erabiltzen zituzten. Jantziei ere garrantzi handia ematen zieten: erosi beharrean, jostunek egiten zizkiguten soinekoak", esan digu Rosariok. Zapatak ere ez ziren nolana hikoak: oraindik ere hain


modan dauden takoi altu eta findun zapatak jantzita joan ziren aretxabaletar gazteak ezkontzara. Andregaiaren soinekoa egun berezi hartarako, berriz, Gasteizen egin zioten Rosariori.

Ezkerretik hasita ondokoak daude argazkian: Pili, Dorita Artze, Lolita Arenaza, Lucia Ezpeleta, Resu Aretxaga,

Maria Jesus Makazaga, 0 Rosario Garziaetxabe (andregai), Belen Madinabeitia, Teresa, Ana Mari Ibartzabal, Miren Garziaetxabe, Arantza Antxia, Jasone Uribesalgo, Marilu, Ana Mari Aretxaga eta Carmen Garziaetxabe.


**Argazkia:**  
Rosario Garziaetxabe

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA

943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

CIPRI'S  
PUB

Aranburuzabala 8  
ESKORIATZA



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2002ko azaroaren 8 / 100. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege goñdailua: SS200/99

## Ehungarren zenbakira heldu da 'Ze Barri? Urlatik Landetara' aldizkaria

AINTZANE GARDOKI

1996ko ekainaren 26an argitaratu zuten ZE BARRI? URLATIK LANDETARA aldizkariaren zerogarren zenbakia. Eskoriatzako eta Gatzagako euskara elkarteek -Axtrokik eta Page-darrek- bultzatu zuten ekimena. Hilabetekaria zen aldizkaria astekaria da gaur egun.

Orri bi izan zituen San Pedro jaiekin etorri zen zerogarren zenbakia; udako oporrak pasatuta, lehenengo zenbakiak orri kopurua bikoiztu egin zuen. Eskoriatzarako eta gatzagarrek hilean behin jasotzen zuten herritarrek egindako aldizkaria. Orrien zuri-beltzak kolore bihurtu ziren bi urte geroago, eta orri kopurua gehitu egin zuen ZE BARRI? URLATIK LANDETARA aldizkariak.

### URTEBETE 'GOIENKARIA'-REKIN

Joan den urtean, urriaren 19an, guztiz itxura aldatuta etorri zen Eskoriatzako eta Gatzagako aldizkaria, bai maiztasunari, bai formatuari, bai eta lantaldeari dagokionez ere. Astekaria da ordutik hona ZE BARRI?, eta aldizkari formatua atzean utzita, egunkari



Datorren otsailetik aurrera orri gehiago izango ditu ZE BARRI? URLATIK LANDETARA astekariak.

formatura ere aldatu zen iaz. *Goienkaria*-ren barne *Aretxagazeta* edizioarekin bat egin zuenean, asteroko albisteak, agenda, herritarren iritziak, elkarrizke-

tak, erretratu zaharrak, eta bestelakoak jasotzea zituen helburu astekari berriak. Baina asko gelditzen da oraindik gehitzeko eta hobetzeko; horregatik, otsailetik

aurrera lau orri gehiago izango ditu Eskoriatzako eta Gatzagako edizioak, eta beste aro bati aurre egin beharrean izango gara bai lantaldea bai eta herritarrek ere.

*Orrien zuri-beltzak kolore bihurtu eta orri kopurua gehitu zuen 1998an aldizkariak*

*Joan den urtean, urriaren 19an, itxura aldatuta etorri zen ZE BARRI? aldizkaria*

*Otsailetik aurrera beste aro bati aurre egin beharko diote bai lantaldeak bai eta herritarrek ere*

## ATREBENTZIAEZPADA/ Irakurtzen duzu Eskoriatzako eta Gatzagako astekaria? Gustuko duzu?



**JOSEFINA ARRESE**  
Marin

Ez dut erraztasunik euskaraz irakurtzeko, baina gustatzen zait begiratzea, ea ezagunik badatorren-edo. Astero horiek guztiak betetzea ez da erraza izango.



**IÑAKI AGIRIANO**  
Eskoriatza

Ez dut jasotzen, eta bila ibiltzen naiz. Beti ematen diot pasadaxo bat. Maiztasun handiagoa du, baina eduki aldetik asko galdu du. Orri kopurua oso pobrea da.



**ANA ESNAL**  
Leintz Gatzaga

Jasotzeko irrikaz egoten naiz. Ibarreko eta herriko berriekin enteratzen naiz. Oso gustuko dut. Euskaraz irakurtzen dudana medio bakarrenetarikoa da.




**RUBEN BEITIA**  
Apotzaga

Barikuetan noiz jasoko egoten naiz. Gustuko dut eta irakurtzen dut. Neurri aldetik lehenagokoa baino txikiagoa da, baina edukiz ez dut uste gutxiago denik.



**MAIDER NAFARRATE**  
Eskoriatza

Nik astero irakurtzen dut. Oso-oso bertakoa da, hori dut gustuko. Ez du orri askorik, baina herritarrok gertu gaude gehiagori erantzuteko? Ez dakit.



**JOSEBA URKIA**  
Gellao

Hiru orri nahikoa direla koan nago. Egia esan, hurbileko gauza txikiak ez zaizkit askorik interesatzen, gurago dut gauza orokoragoetara jotzea.



## TELEFONOJAKINGARRIAK

## ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

## BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

## OHARRAK

## 'URAK DAKARRENA... GLU, GLU, GLU, GLU'

Datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Esther Uriak antzezlan egingo du HUHEZIKO areto nagusian. Luis Fernándezen testuetan dago oinarrituta.

## ATE IREKIAK ARIZMENDI IKASTOLAN

Datorren zapatuan, hilaren 16an, Arizmendi Ikastolako Almen gunea ezagutzeko aukera eskainiko diete hala gura dutenei, 16:00etan. Instalazioak ikusteaz gain, hainbat ekintza prestatu dituzte gurasoendako eta umeendako: pailazoak, lantegiak, eta abar.

## AXTROKIRENAGENDA

## KIRMEN URIBE GUSTURA

'Bitartean heldu eskutik' poesia errezitaldiarekin pozik dago bai euskara elkarte eta bai Uribe bera ere; emalea eta hartzailearen arteko hartu-eman bizia izan zelako, besteak beste.

## KIROLA

## Kenpoa, Hawaiiitik eta Filipinetatik Eskoriatzaraino heldu den kirola

AINTZANE GARDOKI

Joan den aspaldian askotan entzuten den berba da kenpoa. Eskoriatzan bizi den Rafa Carriet arrasatearra duela lau urte hasi zen borroka-arte hōri praktikatzen: "Kenpoa Hawaiiin jaio zen, XIX. mende amaieran. Berba gutxitan esateko, kenpoak betiko borroka-arteak Hawaiiiko eta Filipinetako uharteetako borroka-teknikekin tartekatzen ditu. Baina gure artean nahiko berria da", azaldu digu Rafak.

Joan den urtean, zortzi eskoriatzar hasi ziren Rafarekin batera kenpoa egiten. Eta aurten, sei eta zortzi urte bitarteko 15 ume hasi dira kirol hori praktikatzen: "Oso ondo pasatzen dute. Koordinazio eta psikomotritate jokoak eta beharrezko orekarekin mugitzen jakiteko teknikak lantzen ditugu. Oraindik ez dute borrokarik egiten".



Koordinazio eta psikomotritate jokoak egiten dituzte umeek saioetan.

## TXUTXUMUTXUA



## Real Madril taldearen palkoan

Antonio López eskoriatzarra Real Madril taldearen jarraitzaile sutsua dela jakin dugu. Talde zuriaren bazkide da, eta joan den astean, futbola horren gustuko ez duen beste eskoriatzar batekin Real Madril-Roma partidua ikusten izan zen, Santiago Bernabeu futbol zelaian. Segovian bapo bazkaldu, eta arratsaldean, Real Madrilek lortu duen bederatzigarren Europako Kopa ikusi zuten; argazkia, horren lekuko. Romak partidua irabazi zuela-eta, nahiko sufritu zuen Lópezek. Dena dela, primeran pasatu zuten eguna eskoriatzarrok Espainia aldean. /A.G.

## LABUR

## Hirurehunetik gora umek egingo dute kirola asteburuetan

Bihar hasiko da Multikirola Programa. Sei eta hamasei urte arteko umeen artean kirola suspertzeko asmoz, Kurtebarri, Ezeiza eta Arizmendi ikastolek abian jarritako jardura da. Hirurehunetik gora ume dagoeneko gogor entrenatzen hasi dira, eta bihurtik aurrera, asteburuetan, norgehiagoka ibiliko dira. Datorren maiatza bitartean, neska-mutilek eskubaloia, saskibaloia, areto futbola, futbola, bai eta banakako kirolak egiteko aukera ere izango dute.

## Mirvat S. Koop. enpresak saria jaso du Gasteizen

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Ingurumena Hobetzeko Plana saria eman dio Eskoriatzan dagoen Mirvat kooperatibari. Enpresaren jardueran ingurumena zaintzeaz arduratzen diren enpresei ematen diete saria. Sabin Intxaurrearen eskutik, Euskal Autonomia Erkidegoko 140 enpresak jaso dute aste honetan sari hori, tartean, Eskoriatzako enpresak. Mirvat kooperatibak estaldura elektrolitikoak egiten ditu. 29 langile dabilta Mirvat kooperatiban lanean.

## Euskal Jolasen ikastaroa izango da datozen asteotan

Bihar hasi eta datozen hiru zapatuetan Euskal Jolasen ikastaroa egingo dute, Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta. 35 lagunek eman dute ikastaroan parte hartzeko izena; gehienak eskoriatzarrok edo Eskoriatzan lan egiten duten irakasleak dira. Herriko eskoletan umeekin lanean ibiltzen diren hamabi ikaslek ere hartuko dute parte ikastaroan. Hirugarren zapatuan, umeekin batera Jolas Jaia egingo dute parte hartzaileek.

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

AZKOAGA  
ESTANKOA

Zure  
Zerbitzura

Calderería  
Cantera, S.L.  
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilita

Aingerugardakoa ibilbidea z/g  
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21  
ESKORIATZA

# Artisauen lanez gain, beste hainbat gauza egongo dira ikusgai etzi, domekan

AINZANE GARDOKI

Dena gertu dago Leintz Gatzagan domekarako. 10:30ean hasi eta 20:00ak arte, X. Langintzen Ferixa egingo dute. Gatz Museoa ere zabalik egongo da hurreratzaren diren guztiendako, eta antzina lixiba zelan egiten zuten ere erakutsiko dute emakumeek.

X. Langintzen Ferixan hamabost artisauk hartuko dute parte. Euskal Herri osotik etorritako artisauak eskuz egindako lanak erakutsiko dituzte domekan, 10:30etik 20:00etara bitartean. Ikusgai egongo dira, besteak beste: eskuz margotutako arropa, otarregintza, egurrezko jostailuak, hosto prentsatuak, zahatoak, likoreak, bitxigintza, marketeria, albokak, adarrak, pilotak eta beira lanak.

#### TALOAK, IRASAGARRA, ETA BESTE

Frontoian kokatuko dira artisauak, eta frontoian bertan Sorginak taldeak, urtero moduan, taloak egingo ditu: 90 kilo artirin, 35 kilo txistorra eta sei kilo hirugihar izango dituzte saltzeko. Aste barruan emakumeek egin dituzten buzkantzak ere izango dira domekan. Baina protagonistak ez dira nagusiak bakarrik izango; izan ere, herriko umeez iaz dantolinarekin gaztainak erre zituzten, eta aurten, etxean egindako marmeladak eta irasagarrak izango dituzte salgai frontoi ondoko plazan.

#### LIXIBA ERAKUSKETA

Ohitura zaharrak suspertu guran, gatzagarrek txondorra egin zuten, lehenengo, irametak zelan egiten ziren ere erakutsi zuten, iaz, eta aurten, emakumeek testigua hartu diete gizonen. Antzina arropa zuritzeko lixiba edo pujeta zelan egiten zuten erakutsiko dute goizean eta eguerdian. Beharrezkoak diren guztiak gertu dituzte emakumeek: zugana edo tina, lixiba-harria, lixiba-aska... Prozesu osoa erakusteko erabiliko dituzten tresnak Gatzagako baserrietako ganbaretatik jaso dituzte. Erakustaldia udaletxe ondoko parke txikian egingo dute.



Aurten, X. Langintzen Ferixako egunean, emakumeek hartu dute ohitura zaharrak suspertzeko ardura handien.

Gatz Museoa, bestalde, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik. Eta domekan bertan -egun osoan-,

Gurutze Muxikaren margolanak ere egongo dira ikusgai, Garro jauregian, hain justu ere. Langintzen Ferixa, ikustera

doan jendearendako, Dorletatik herrira eta herritik Dorletara joan-etorrian ibiliko den autobus zerbitzua jarri du Udalak.

*Guztira, 90 kilo artirin, 35 kilo txistorra eta sei kilo hirugihar prestatuko dituzte*

*Herriko umeez ere etxean egindako marmelada eta irasagarrak izango dituzte salgai*

*Gurutze Muxikaren margolanak ere egongo dira ikusgai, Garro jauregian, hain justu ere*

*Museoa 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik*

*Domekan Dorletatik herrira joateko autobus zerbitzua jarri du Udalak*

# FAGOR



## ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingerugarda ibilbidea, z/g  
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

Mountain Hard Wear  
Millet  
Ternua  
Salewa  
Solo  
Tuckland  
Salomon  
Peltz  
Boreal  
Asolo  
Ferrino  
Vaude  
Garmin  
Magellan  
Neak  
Coleman  
Grivel  
Rossignol  
Atomic  
Fischer  
Nordica  
Lange  
Head  
Salomon  
Dynastar  
Skitrab  
Fink  
Lowa  
Scarpa  
K2  
Mitre



www.forumsport.com



KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6  
20500 Arrasate, Gipuzkoa  
Tef. 943 77 30 72

# Ezerk ez dizu ihes egingo.

**GOITBko albistegiak arratsaldean:**

14:30, 15:30.

Aurkezlea: Gorka Etxabe.

**GOITBko albistegiak gauean:**

20:00, 21:00, 22:00, 23:00.

Aurkezlea: Mainer Osa.




*Ikusiko duzu!*



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**Dorleta  
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
ARETXABAleta  
Tel. 943 79 94 15

**AZKENA taberna**  
Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABAleta. 943 79 20 67

**URBALTZ  
TABERNA**



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABAleta

**ZARAIA  
TABERNA**

**BERRITZE-  
LANENGATIK  
ITXITA**

Goizko zerbitzuan

MANTEKA ANAIK  
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

**HIRUSTA JATETXEA**

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

**Baster-Alde jatetxea**



**Sasoiko  
jakiak giro  
onenean**

Galartza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 24 58

*Mitartegarai*

**Areantza auzoa, Aretxabaleta**  
943 79 17 51

**IZOTZ  
Taberna**

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABAleta

**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**ARTANO akaitegia**



Gosariak  
goizeko  
7:00etatik  
aurrerak!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABAleta

**ESKORIATZA**

**Bazkariak  
eta  
afariak**

Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan  
itxita

Tfno 714345



**MENDIOLA**

**ERRETEGIA**

**COMPOSTELA  
Taberna**

**Olagarro espezialitatea**

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70

**JOSU  
taberna  
harategia**

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08

